



## KUDEAKETA AURRERATUAREN 31. EUROPAKO ASTEA

### Urriak 8-22

#### EKITALDI ANTOLATZAILEEN ONARPEN ZEHAZTAPENAK

- Europako Astean egiten diren ekitaldietan EUSKALITek aukeratutako gaia landuko da, hots, **Kultura erakunde aurreratuetan**.
- **Beste gai batzuk baloratzeko aukera egongo da**, Kudeaketa Aurreratuko Elementuei lotuta badaude (Estrategia, Bezeroak, Pertsonak, Gizartea, Berrikuntza eta Emaitzak).
- Erakunde antolatzaileek **proposamen bat aurkeztu beharko dute**, eta hor jaso beharko dute **Europako Astearen parte hartzea justifikatuko duen jardunbide egokia edo esperientzia arrakastatsuren bat**.
- **Partaidetzarik egokienak zein diren kudeaketa eta komunikazioaren arloko adituez osatutako Batzorde batek erabakiko du**. Horretarako, hainbat irizpide hartuko dituzte kontuan, hala nola, berritasuna, emaitzak, zeharkakotasuna, etab.
- **Batzorde honen erabakia uztailan jakinaraziko da**. Proposatutako gaiak **bat ez badatoz EUSKALITek lehenetsitako gaiekin edo Astearen helburuarekin**, Batzordeak erabaki dezake **ekitaldi hori Europako Astearen esparruan ez sartzea**.
- Ekitaldi horiek **antolatzaileen baliabideekin egingo dira**, zuen ustez egokiena den moduan (aurrez aurrekoa, streaminga, online), eta egokitzat jotzen duzuen formatuan eta iraupenean (mahai-ingurua, bertaratutako publikoaren edo publiko birtualaren hitzaldia eta galderak, etab.).

#### ANTOLATZAILEEN KONPROMISOAK

- **Epeen betetzearekin bereziki zorrotzak izatea behar dugu**, gainerako lankideen lana eta antolaketaren fase guztiak errespetatu ditzagun, Astearen antolaketa pertsona eta erakunde askoren ahalegin garrantzitsua suposatzen duelako.
- Behin Astea bukatuta **antolatzaile moduko inkesta betetzea**. EUSKALITentzat oso garrantzitsua da zuen iritzi eta iradokizunak biltzea, Astearen hurrengo edizioak hobetzeko, eta zuen ekitaldira bertaratutako pertsonen kopurua jakiteko.
- EUSKALITi sortu daitezken **edozein aldaketa edo ustekabe** aurrerapen nahikoarekin **jakinarazi**.

#### EUSKALIT